

LAS PELÍCULAS / FILMAK / THE FILMS / LAS PELÍCULAS / FILMAK / THE FILMS / LAS PELÍCULAS / FILMAK / THE FILMS / LAS PELÍCULAS / FILMAK / THE FILMS / LAS PELÍCULAS / FILMAK / THE FILMS / LAS PELÍCULAS

PERLAS / BITXIAK



BEREZIAK

DEATH AT A FUNERAL

El valium puede causar estragos familiares

No suele ser habitual encontrar en un festival de cine películas como *Death at a Funeral*, una comedia absolutamente disparatada, pero, como se ha podido ver en alguna otra edición del certamen donostiarra, es precisamente este contraste con un tono general que suele ser mucho más grave y trascendente el que puede elevar a los altares a producciones de este tipo. Y es que hasta el cinéfilo más circunspecto necesita de vez en cuando un cambio de aires y que le

hagan reír un poco. No sólo de dudas existenciales vive el hombre.

Frank Oz, que aparte de su carrera como actor tiene bastante experiencia en la dirección de comedias, cuenta en *Death at a Funeral* la reunión de una familia inglesa en torno al patriarca fallecido. Como es habitual en este tipo de películas, enseguida se desatan las hostilidades entre los miembros de la familia, hijos, nueras, sobrinos... Hay discusiones por el dinero, por la lectura

del discurso de despedida del difunto, por las plazas de aparcamiento, por los antiguos amores... Y en medio de todas estas discusiones hace su aparición un elemento inesperado, un frasco de Valium que en realidad no contiene lo que dice la etiqueta y que dará lugar a las situaciones más divertidas y más exageradas de la película. A todo ello hay que añadir la irrupción de un personaje inesperado que, como suele ocurrir en este tipo de películas, amenaza con desvelar que el muerto tenía una vida oculta.

Muchos de los elementos con los que juega el director están vistos en multitud de películas, pero aquí se manejan con sabiduría y el resultado es

de una comicidad sorprendente. Es verdad que hay un humor inglés más sutil que el de *Death at a Funeral*, pero uno no piensa demasiado en ello cuando no deja de reírse durante toda la película.

Es bueno que los festivales de cine ofrezcan diferentes tipos de películas y no se centren únicamente en el drama. Aparte del respiro que supone para los espectadores poder ver filmes como el de Frank Oz, hay que tener en cuenta la opinión de numerosos cineastas que piensan que es mucho más complicado hacer una buena comedia que un buen drama, y *Death at a Funeral* es una excelente comedia que logra plenamente su objetivo, hacer reír al espectador. **M.B.**

QUERIDA BAMAKO

Bidaia luze baten kronika

"Bamako maitea" Moussak, Burkina Fassoko gazte batek, afrikar kontinentean zehar milaka kilometro egin eta Espainiara txalupaz etorkin moduan iritsi ondoren bere emazteari idazten dion eskutitzaren idazpurua da.

Filmean protagonistaren bidaia-er dramatizazioa ikusiko dugu bate-tik; bestetik, berriz, etorkin batzuk beren helmugara iristeko gainditu behar izan dituzten eragozpenak eta gertakariak kontatzen dizkigute; guztiak kolonizazioaren eta globalizazioaren eraginpean hainbeste mendez egon izanak beren herrialdeetan utzi duen miseriatik ihesi datoz.

Gaurkotasan-albisteek espainiar kostaldeetara etorkin-taldeen helduerari buruz hitz egiten digute egu-nero. Familia eta kultura-erroak atze-an utzi dituzte agintzazko lurrera iristen saiatzeko, bizi duinagoa izateko aukera emango dieten lurrera iriste-ko, hain zuzen.

Baina makina bat muga zeharkatu behar dituzte horretarako, batzuek artifizialak eta naturalak besteak. Bidaia ekin aurretik jakin badakite gutxi batzuek soilik lortuko dutela beren ametsa eta, kasu askotan, beren artean sortuko den elkartasunari esker lortuko dute.

Espainiar kostaldera iristea ez da, ordea, bidaiaren amaiera, esperantzarako bideko beste etapa bat gehiago baizik. Paperik, lan-eskaintzarik, bizileku finkorik gabe, ez da zerumugarik gabeko egonaldia baizik izango gure artean emango duten denbora. Etorkinak non sartu ez dakigun tratatzen hartzeak ez du ezer konpontzen. Eta etorkinak beraiek jakitun dira, beren elkarrizketen bidez gogorazten diguten moduan, gure gizartearen erronka handia haien gizarteratzea eta kultura-integrazioa dela.

.....
Xabier PORTUGAL

DARLING

Bakardade bateraezinak eta lan merkatua

Herrialde guztietan, baita garatuenetan eta aberatsenetan ere, aurki daitezke, miseria gorrian ez bada, prekariedade handian behintzat bizi diren pertsonak, nahiz eta gehienetan erdi ezkutaturik egoten diren, sistemari ez baitzaio komeni ongizatearen Europan halako kontrasteak daudela jakitea. Eta batzuetan aurrera ateratzeko larri ibiltzen direnek ere arazoak izaten dituzte beren egoera onartzeko.

Bi dira *Darling* pelikula suediarren protagonistak, senargaiak utzi ondoren lana ere galduko duen saltzaile pijoak, alde batetik, eta esperantza gal-

du gabe aukera bat etengabe bilatzen duen 61 urteko gizona. Hasiera batean Estokolmoko gazte aberatsen mundura garamatza filmak, komedia baten erritmoan: taberna eta jatetxe garestiak, luxuzko kotxeei buruzko elkarrizketa ergelak eta zirkulu itxi batetik atera gabe liggatzeko ahaleginak.

Piskanaka-piskanaka, komedia tonu hori galduko du pelikulak eta gizarte aurreratuek duten arazo handienetako bat aurkeztuko digu, adineko langabeena. Edonorentzat lan duin bat aurkitzea zaila bada, jakina da berrogei urtetik aurrera are zailagoa izaten dela,

ezezkoa ez esateagatik. Horri gehitu behar zaio Bernard dibortziatu egin dela, etxe handi bat ordaindu behar duela eta alabak ez diola batere kasurik egiten. Hala eta guztiz ere, Bernard irrifartsu azaltzen da beti, batzuetan gizarajo bat ere ematen duelarik.

Buelta ugari eman eta toki askotan ezezkoa jaso ondoren, hanburgeseria batean onartuko dute Bernard, eta, kasualitate, bizitza honetan dena ez dela luxua eta dirua irabazte egin behar dela ikasi ondoren, toki berera iritsiko da Eva. Zorte ona bukatu zaiola ematen du eta lagunek alde batera utziko dute, aberaskumeek ez baitute deus ere jakin nahi McDonalds bateko sukaldean lan egiten duen inorekin. Bakarrik daude biak, Eva gaztea eta Bernard zaharra, eta bakardadeak adiskide bihurtuko ditu, baina ez lu-

zaroan, batzuek ez baitakite zer den benetako adiskidetasuna.

Darling honen aurretik laburmetraia bat besterik ez zuen Johan Kling zuzendariak, baina modu onak erakusten ditu. Sinopsian irakur daiteke komedia beltza dela film hau; dena dela, oso modu egokian islatzen ditu gaurko gizartearen ankerkeriak eta burgeskume batzuen bizimodu antzua. Horrela, ikusleak pijoak madarikatuko ditu eta langabe zahararen enpatia sentituko du ezinbestean.

Azken aldi honetan badi-rudi indar handia hartzen ari dela Eskandinabian egindako zinema, eta ez diogu bakarrik Dogma mugimenduegatik. Gero eta pelikula gehiago iristen dira gure pantailetara, haietako asko oso kalitate onekoak. **M.B.**

PLOY

Amodioaren iraungitze data

Ametsetik errealtatera eta alderantziz etengabe mugitzen den pelikula honetan bada zer-bait nolabaiteko botere hipnotikoa duena, eta ez da bakarrik apenas entzuten ez den musika errepikakor eta misterio-tsua; irudiek ere badute ikusle sorgintzeko ahalmen berezi bat edo. Pertsonaiek bezala, guk ere hainbat momentutan ez dakigu fikzioaren barneko beste fikzio batean gauden edo gure bizimoduarekin guk nahi genukeen baino zerikusi handiagoa duen istorio baten erdian. Eta horrek guztiak nolabaiteko artegatasuna sortarazten du gure barruan, norbaitek mundu paralelo horietara eramán ahal bagintu bezala, halako batean existitzen den ere ez dakigun bikotea larritan ari den gelan agertu ahal bagina bezala. Alabaina,

ametsarena sinetsi dugunean, indarkeria agertzen da, errealtate bortzitzea, eta berriro ere galtzen gara film eder honen labirintoan.

Hasiera batean triangulu baten istorioa dirudiena askoz haruntzago doa, eta jelsia baino askoz ere sentimendu sakonagoak agertzen dira. Amodioaren iraungitze dataz galdetzen diete protagonistek beren buruei erantzun zehatz bat lortu gabe. Bikote bat iritsi da hiriko hotelera hileta baterako bidean eta bertako tabernan neska gazte bat aurkitu du gizonak. Neska amaren zain dago, baina goizaldea da eta orduak falta dira ama iristeko. Gizonak bere gelan deskantsatzeko gonbitea egin dio, baina emazteari ideia ez zaio asko gustatu. Hor abiatzen da sentsibilitate

bitxi batez kontaturiko istorio konplexu hau, errealtate-tik kanpo dirudien sexu harreman batekin tartekatzen dena. Ihesaldi saio bat ere badago, gaizki bukatzen dena, eta baita hilketa onirikoren bat ere.

Gaur egungo zinean hainbeste su artifizial behar direla ematen duenean, pelikula honek erakusten digu istorio bat kontatzeko aski dela bikote aurkeztea eta gertatzen zaiena kontatzea. Hori bai, istorioa jendearen bihotzera edo, nahiago bada, erraierara helarazteko gaitasuna behar da, eta gaitasun hori ez zaie falta Ploy-ren egileei. Batzuentzat ez da erraza izanen Ploy gaztea eta pelikula honetako gainerako pertsonaiak ahaztea. Era berean, seguru nago batek baino gehiagok, bikotekidearekin eztabaidatzen duenean, amodioaren iraungitze data izanen duela buruan. **M.B.**

BERLIN

Canciones tristes y ráfagas de guitarra junto al Muro

Creo que fue Juan Cueto quien escribió que nos pasamos la vida comprando los mismos productos en distintos formatos, y esto es especialmente cierto en el caso de la música; así, mucha gente tiene los mismos discos en vinilo, en CD o en MP3. En mi caso, son muchos los discos de Lou Reed repetidos, pero no es el caso de "Berlin", un vinilo que guardo con celo y que nunca he tenido en versión digital, seguramente a causa de alguna clase de fetichismo.

No sé por qué Lou Reed pasó tanto tiempo sin interpretar en directo este trabajo completo. Fue grabado en 1973, pero no volvió a ser interpretado ante el público hasta 2006 en Nueva York. Julian Schnabel, amigo de Reed, se encargó de grabar este

concierto y el resultado es espectacular. Es verdad que son canciones tristes que hablan de desamor, de soledades, de adicciones y de caídas, pero todo esto queda redimido con un acorde de guitarra eléctrica o un golpe de batería. Los que han asistido a conciertos del músico neoyorquino ya saben lo que se siente cuando interpreta alguno de sus clásicos, y la película de Schnabel emociona a cualquiera que sienta la música y las letras de Lou Reed, junto a Bob Dylan, uno de los mejores escritores de letras de canciones de rock and roll de toda la historia. El teatro de Brooklyn donde se grabó el concierto en 2006 está muy lejos del Berlín de la guerra fría, pero yo no he dejado de ver un muro lleno de pintadas mientras me emocionaba con la voz de Anthony y los acordes de "Sweet Jane". Definitivamente, sin el R&R, sin Lou Reed, no seríamos nosotros; seríamos todavía mucho peores. **M.B.**